

BALKANAK. Hiru urte barru independentzia osoa eskuratzea izango dute bi herrialdeek, erreferendumen bitartez

Jugoslaviako federazioa desagertuta, Serbia eta Montenegro Estatua jaio da

Belgradeko Legebiltzarrak Konstituzioa aldatu du, federazioa ezeztatzeko

Edu Lartzunguren | DONOSTIA

Jugoslaviako federazioaren amaiera ekarri zuen atzo Belgradeko Legebiltzarreko bi gaberak eman zuten botoak. Konstituzioa aldatu eta Jugoslavia historiako liburueta bidali zuten diputatuek. Titoren estatutik zirauen apurrak *Serbia eta Montenegro* izena izango du aurrerantzean geografia liburuetan zein mapetan. Honez gain, independentzia osorako erreferendumak egiteko aukera izango dute bi errepublikotan, hiru urte barru.

«Herrialde berri baten sorrerako azken ekitaldia da hau», adierazi zuen atzo Legebiltzarreko buru Dragoljub Micunovic. Senatua izan zen atzo Konstituzioa aldatzeko bozkatu zuen lehenengoa. Jugoslaviaren desagertzea ekarriko zuen aldaketari baiezkua eman zioten 26 senatariak. Soilik zazpi bozkatu zuten aurka. Kongresuan, berriz, 84 diputatuek estatu berriaren lege nagusia onartu zuten, 31 kontra agertu zirelarik. Joan zen astean Serbiako eta Montenegroko errepubliketako legebiltzarretan onartu zituzten lege berriak.

Jugoslaviako federazioaren ordeztatu berri den Serbia eta Montenegro izeneko estatuak botere zentral murriztua izango du. Estatu berria gutxienez hiru urtez gordetzean adostu dira Belgrad eta Podgoricako agintariak. Horren ondoren, independentzia osoa eskuratzeko aukera izango dute, herritarrek erreferendumaren bidez galdekatuta.

«Estatu elkarte»

Konstituzio berriak bi estatu berdinen «estatu elkarte» gisa definitzen du Serbia eta Montenegro. Serbiako Estatuari bi eskualde autonomo onartzen dizkio: Vojvodina eta 1999tik Nazio Batuen Erakundearen agintepean den Kosovo.

Belgrad estatu berriaren «erdigune administratiboa» izango da. Bertan egongo dira ganbera bakarrek Legebiltzarrak eta lau



RSDJAN SUKI / EPA

Jugoslaviako Legebiltzarreko buru Micunovic—erdian— federazioaren azken ekitaldian, atzo, Belgraden.

HITZARMENA

- Serbia eta Montenegrok bi estatu berdinen arteko elkarte bat osatuko dute, gutxienez hiru urtez.
- Hiru urte barru, independentzia galdeketa egin ahalko da.
- Belgrad izango da hiriburu administratiboa.
- Legebiltzarrean erabakiak hartzeko, estatu bakoitzeko ordezkarien gehiengoaren onespina beharko da.
- Gobernuak bost ministerio izango ditu: Defentsa, Atzerria, Atzerriarekiko Harreman Ekonomikoak, Barne Harreman Ekonomikoak eta Giza Eskubide zein Gutxiengo Babesa.
- Presidentea eta bi ministro estatu batekoak izango dira; beste bi ministroak beste estatukoak.
- Sistema ekonomikoak harmonizatuko dira, baita Europako Batasuneko araudiekiko ere.

urterako hautatuak izango diren presidentea zein ministro kontseilua. Montenegroko hiriburu Podgorica, berriz, estatu berriko Auzitegi Nagusiaren egoitza izango da. Epaileak elkarte bi estatuetakoak izango dira, kopuru berean.

Legebiltzarrak 126 diputatu izango ditu. Horietako 91 Serbiako diputatuak izango dira, eta 35 Montenegrokoak. Estatu bakoitzeko diputatuen gehiengo beharko da erabakiak hartzeko. Bi urtean, Belgrad eta Podgoricako legebiltzarretatik joandako diputatuek osatuko dute parlamentu berria. Gero, hauteskunde bidez aukeratuko dituzte zuzenean.

Armada buruzagitza nagusia Belgradeko, Podgoricako zein estatu berriko presidente-

ek osatuko dute. Erakunde militarrean kontsentsuz hartuko dituzte erabakiak. Armada zibilen kontrolpean izango da, eta Legebiltzarrak zehaztuko du defentsarako estrategia.

Serbia eta Montenegroko sistema ekonomikoak bateratuko dira, eta Europako Batasuneko araudietara hurbiltzen saiatuko dira.

Estatu berriak aulki bakarra izango du nazioarteko erakundeetan. Postuotan txandaka izango dira serbiarrak eta montenegroarrak.

Jugoslavia (1929-2003)

Serbiarren, Kroaziarren eta Esloveniaren Erresuma izenpean jaio zen 1918an, 11 urte geroago Jugoslavia bihurtuko zen estatua. Bigarren Mundu Gerra-

ren ondoren, Montenegro, Mazedonia eta Bosnia-Herzegovina gehitu zitzaizkien hasierako errepublikei, Josip Tito mariskalaren agintepeko estatu federal sozialistan.

Europako estatu komunisten gainbeherak gerran murgildu zuen Jugoslavia. 1990eko hamarkadaren hasierako guda odoltsuen ondoren, independentzia lortu zuten Kroaziak eta Bosniak. Mazedonia eta Esloveniak gerrarik gabe lortu zuten Jugoslavia uztea.

Federazioan geldituriko azken estatuen artean —Serbia eta Montenegro— tirabira handiak izan dira azken urteotan, azken errepublikan independentziaren aldeko mugimendua bizkortu ondoren. Azkenean, Europako Batasunaren presiopean, estatu berria sortzeko adostasuna lortu zuten Belgrad eta Podgoricak.

«Serbia zein Montenegroren interesekoa da elkarrekin jarraitzea», esan zuen atzo Miodrag Isakov Belgradeko lehen ministroordeak. Aurrerantzean, bi errepublikek «batasun benetan eragingarria sortzeko edo bide desberdinak jarraitzeko aukera» zutela nabarmendu zuen, halere, Isakovek.

Vojislav Kostunica Jugoslaviako federazioa zeneko presidentea ez du, atzodanik, kargu ofizialik.



SERBIA

Eremua: 88.361 kilometro kuadro
Populazioa: 7,5 milioi biztanle (Kosovo kontuan hartu gabe)
Etniak: Serbiarrak, hungariarrak, eslaviarrak.
Dirua: dinarra
Hizkuntza: serbiera

MONTENEGRO

Eremua: 12.812 kilometro kuadro
Populazioa: 640.000
Etniak: eslaviarrak, musulmanak, albaniarrek.
Dirua: euroa
Hizkuntza: serbiera

J. APEZTEGIA

GILAKERA

Joan den mendean Serbiar, Kroaziar eta Esloveniaren Erreinu gisa sortu zen federazioa zatitzen joan da Serbia eta Montenegro bihurtu arte.

1878. Serbia eta Montenegro independentzia lortu zuten. Serbiak Kosovo bereganatu zuen.

1912-1913. Balkanetako gerraren ostean, turkiarren menpe geratutako zenbait lurralde berreskuratu zituzten.

1918. Inperio Otomano eta Austro-Hungariarren menpe egondako Balkanetako lurraldeek Serbiar, Kroaziar eta Esloveniaren Erresuma sortu zuten.

1929. Jugoslavia izena ezarri zioten erreinuari.

1945. Titoren erregimenak monarkia ezabatu zuen. Eslovenia, Kroazia, Bosnia, Serbia, Montenegro eta Mazedoniako errepublikek osatutako federazioa sortu zen.

1991. Eslovenia, Kroazia, Mazedonia eta Bosniak independentzia aldarrikatu zuten.

1992. Serbiak eta Montenegrok Jugoslaviako Errepublika Federala sortu zuten.

1992-1995. Bosniako gerra.

1999. Kosovoko gerra. Nazioarteko komunitatearen esku geratu zen.

2001. Montenegrok independentziaren aldeko erreferenduma iragarri zuen. Ez zen egin, azkenean.

2003KO OTSAILAK 4. Jugoslavia desagertu, eta Serbiaren eta Montenegroren arteko batasun berria sortzea onartu zuten Belgradek.